



FITXA TEKNIKOA	-KOKALEKUA:	PLAZA DE ETXARRI ARANATZ	-PROIEKTUAREN EGILEA:	IG-ER ARKITEKTURA S.L.
	-AZALERA:	347,10 m2	-OBRA ZUZENDARITZA:	IG-ER ARKITEKTURA S.L.
	-AURREKONTUA:	124.233,38 €	-SUSTATZAILEA:	ETXARRI ARANATZEKO UDALA
	-HASIERAKO DATA:	10-2018	-ERAIKITZAILEA:	-CONSTRUCCIONES JAMSAR S.L.
	-BUKAERA DATA:	02-2019		-ZURTEK S.L.

OIN OROKORRA. 0,5 m KOTAN. 1/250



OIN OROKORRA. 4,5 m KOTAN. 1/250




AURREKO BISTA




ATZEKO BISTA



AURREKO ALTZAERA. KIOSKOA. 1/100



ATZEKO ALTZAERA. 1/100




ESTALPE AZPIKO BISTA




ALBOKO BISTA



ALBOKO ALTZAERA. SIMETRIKOA BI ALDETARA. 1/100



A-A' EBAKETA. 1/100



MEMORIA

AURREKO EGOERA

Elxari Aranatzeko plazako kioskoak hainbat berrikuntza izan ditu urteetan zehar. Kioskoak eszenatoki bezela erabili da bertan ekitaldi desberdinak emateko. Oin biribileko forma izan du beti eta Elxariko herrian honek garrantzi handia izan du, besteak beste festetan kioskoari bueltak ematen dantatzeko ohitura dagoelako. Bestalde, zuhaitz ugari daude kioskoa inguratzen eta hauek ere plazaren adierazpen bilakatu dira. Eguraldia dela eta, hainbat ekitaldi bertan behera gelditu behar izan dira aurreko kioskoaren ezaugarriengatik. Beraz, udaltxeak kioskoa ordezkatzeko beharrezkoa ikusi zuen, plaza izan dituen gabeziak hobetzeko baldintzarekin.

Elxariko udalak kioskoa ordezkatzeko gain, 350 m²-ko estalpe bat plazan izatea funtsezkoa zela pentsatu zuen, udan itzala emateko eta egun eurixutan herri erdian aterpe bat izateko asmoz. Baina aterpe hau kioskoarekin harenarean egon beharko da, baina kiosko identitatea ez galduz.

ONARTUTAKO PROPOSAMENA

Egindako proposamenaren kiosko berria lehen zegoen lekuan mantentzen da diámetroa neurri batean handituz, eta eszenatokiaren altuera jeltziz. Kioskoari teilatu bat teilatu-hegal haundi batekin jartzea planteatu zen atzeko aldera jarraitasuna emanez. Honen helburua, atzeko aldeko plazak behar duen estalpea izatea da, aurreko aldeko kiosko esentzia galdi gabe.

ATERPEA


Aterpea jartzeko erdialdeko 10 zuhaitz kendu behar izan ziren eta hauen ordez teilatu bermatzeko 10 burdinazko zutabe jarri ziren plazaren erimua jarraituz. Teilatuaren altuera zuhaitzen kopien altuerakoa da, modu horretan eraikinen inpaktua gutxitu egiten da plazan erabat integratuz.

Teilatuaren egitura nagusia abetazko egur laminatuekin eginko biga kurba batzuz osatua dago galuraren altuera gutxituz. Biga hauek burdinazko zutabeetan bermatzen dira. Egitura nagusia zurruntzeko burdinazko egitura eta biga kurboen artean egurrezko tompunta batzuk planteatu ziren. Estalpearen sabaia egurrezkoa da akustika goxoago bat aurkezteko.

KIOSKOA

Kioskoaren oinarriko betebeharrak emanaldiak egiteko eszenatoki bat izatea da. Eginko planteamenduarekin bi eszenatoki mota izango dira. Batetik aurrera begira izan daitekeena, bestetik kioskoaren esentzia mantentuz, eta beste batetik, atzeko aldera (aterpe aldera) egun eurixutan emanaldiak bertan behera ez uzteko planteatutakoa. Honen egitura hormigotzako losa batekin osatzen du burdinazko 6 zutabez inguratua. Itxura pihuzko listoez osaturik dago kioskoaren perimetro osoan egurren goxotasuna kioskorako eramanaz. Emanaldien norabidea adierazteko aurrean eta atzean planteatutako burdinazko ate korredoreak zabalazten ikusi daiteke. Ate hauek ekitaldien trenak eszenatokiara igotzeko errezeko balioko dute praktikotasun bat emanez.

EGITURAREN AXONOMETRIKOA



ERAIKUNTZA KATEGORIA

ETXARRI ARANATZEKO PLAZARAKO KIOSKO ETA ESTALPEA